

Kripke, Perry eta “ni”

Kripke, Perry and “I”

MARÍA DE PONTE*[&]

ILCLI eta Filosofia Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

LABURPENA. Artikulu honetan, lehen pertsonako “ni” izenordainari buruz Kripkek dituen ikuskerez ari naiz. Nire asmoa da erakustea Saul Kripkeren geroagoko ikuskera nola urruntzen den *Naming and Necessity* esplikatu zituenetatik, eta John Perryren azalpenarekin alderatzea; gertuago dago Perryrena Kripkeren hasierako baieztapenetatik. Kripkeren bi artikulu eztabaidatzen ditut, “Frege’s Theory of Sense and Reference” eta “The First Person”. Hasteko, argudiatzen dut Frege egiten duen interpretazioa ez dela egokia, eta gero erakusten dut Kripkeren beraren ikuskera nola eratortzen den interpretazio horretatik. Kripkeren ikuskera Perryrenarekin alderatzen dut, batez ere “Frege erakusleez” (1977 [2018]) lanean aurkezten duenarekin. Kripkeren proposamenak bi suposizio ditu oinarrian: Fregeren ikuskera interpretatzean, Kripkek ez du arazorik ikusten Pentsamendu komunikaezinetan, eta kartesiar *nira* jotzen du berak “ni”ren erabilerak esplikatzeko. Bi suposizio horiek ez ditu egiten *Naming and Necessity*, eta ez dira beharrezkoak “ni” lehen pertsonako izenordainaren azalpen semantikorako.

GAKO-HITZAK: lehen pertsonako izenordaina; Fregeren Pentsamenduak; norberaren ezagutza; autoerreferentzia.

ABSTRACT. *In this paper, I focus on Saul Kripke’s views about the first-person pronoun “I”. I aim to show how Kripke’s later views on “I” differ from the views expressed in Naming and Necessity, and to contrast it with John Perry’s explanation, which is closer to Kripke’s earlier claims. I discuss two of Kripke’s later papers: “Frege’s Theory of Sense and Reference” and “The First Person”. I first argue that Kripke’s interpretation of Frege is not adequate, and then I show how Kripke’s own view on the first person derives from this interpretation. I compare Kripke’s views with those defended by Perry, mostly in his 1977 paper, “Frege on Demonstratives”. Kripke’s proposal includes two basic assumptions: the acceptance of incommunicable Thoughts, when it comes to discussing the Fregean view, and the appeal to a Cartesian self to explain the uses of “I”. These two assumptions are not present in Naming and Necessity and are not needed in a semantic account of the first person pronoun “I”.*

KEYWORDS: *first-person pronoun; Fregean Thoughts; self-knowledge; self-reference.*

[&] Esker on berezia adierazi nahi diot Kepa Kortari lan honen aurreko bertsioei egindako iruzkin zorrotzengatik eta euskararekin emandako laguntza ezinbestekoagatik. Eskerrik asko baita ere Zoom taldeko kideei, haiekin eztabaidatu bainuen lehen bertsioetako bat eta, orobat, Logika, Kognizio, Hizkuntza eta Informaziorako Institutuko (ILCLIKo) *Language, Action, and Thought* taldeko kideei; bereziki, Ekain Garmendia, Joana Garmendia eta Larraitx Zubeldiari, beren laguntza eta pazientziagatik prozesu osoan zehar. Lan hau egiteko Eusko Jaurlaritzak (IT1032-16) eta Espainiako Gobernuak (FFI2015-63719-P (MINECO/FEDER, UE); PID2019-106078GB-I00 (MCI/AEI/FEDER, UE)) emandako dirulaguntzez baliatu naiz.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** María de Ponte. ILCLI.UPV/EHU. Carlos Santamaria Zentroa. Elhuyar plaza, 2 (20018 Donostia). – maria.deponte@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0003-2376-6140>

Nola aipatu / How to cite: De Ponte, María (2021). “Kripke, Perry eta ‘ni’”, *Gogoa*, 22, 93-119. (<https://doi.org/10.1387/gogoa.22600>).

Jasoa: 2021-I-8. Onartua: 2021-III-2. Aurrena online argitaratua: 2021-III-17.

ISSN 1577-9424 - eISSN 2444-3573 / © 2021 UPV/EHU



Lan hau *Creative Commons* Aitortu 4.0 Nazioartekoaren lizentziarekin dago

1. Sarrera

Artikulu hau Kripkeren *Naming and Necessity*ren (N&N, hemendik aurrera) 50. urteurrena ospatzeko prestatutako ale berezi batean dator, eta, jakina, N&Nri buruzkoa izatea esperoko luke batek. Han Kripkek egiten duen proposamenak zuzenean eragindakoa izanda, bertan zuzenean eztabaidatzen ez duen gai bati buruz arituko naiz ni: indexikoei buruz eta, bereziki, lehen pertsonako “ni” izenordainari buruz.

Kripkek ez ditu indexikoak eztabaidatzen N&Nn, baina bertan egiten duen proposamenaren eragina argia da indexikoei buruz aurkeztutako azalpen semantikoetan, eta, bereziki, Perryk (1977, 1979), Lewisek (1979) eta Kaplanek (1989a, 1989b) egindakoetan. Urte batzuk geroago, 2006an emandako eta 2011n argitaratutako “The first person” hitzaldian, Kripkek jorratzen du “ni” lehen pertsonako izenordainaren azalpena. Artikulu aberatsa eta zaila da. Gai asko lantzen ditu, Fregek erakusleez duen ikuskerarekin hasi eta *ni*aren eta *ni*-ezagutzaren nozioekin bukatuz. Izatez, hori irakurrita konturatu nintzen Kripkeren lehen pertsonari buruzko ikuskera ulertzeko, Fregeri eta indexikoei buruzko bere ikuskera ulertu behar nuela lehenik, “Frege’s theory of sense and reference” artikuluan (2011n argitaratua, baina 2001ean hitzaldi gisa eskainia) aurkezten duena.

Azken hori erronka handi samarra gertatu da. Nire asmoa ez da Kripkek bi artikulu horietan azaltzen dituen ideia guztiak, edo gehienak, aurkeztea. N&Nn adierazi zituenetatik, nire iritzian, gehien aldentzen diren ideiei erreparatuko diet, batez ere.

Lehen pertsonari buruzko Kripkeren ideiek badakartzate beharrezkoak ez diren suposizio batzuk, N&Nren “espiritu”ari arrotzak zaizkionak. Horien artean, garrantzitsuenak hauexek: *ni*aren kartesiar ikuskera, alde batetik, eta norberaren ezagutzaren ikuspegi erredukzionista, *ni*aren (edo *ni*-kontzeptuaren baten) ezagutza zuzenaren (*acquaintance* delakoaren) arabera, bestetik. Ikus honako aipu hau:

“Ni”ren lehen pertsonako erabilerak ez dauka fregear zentzurik, noski; horrek definizio bat daukala esan nahi badu, gutxienez. Baina izan daiteke kasu paradigmatico bat, *Naming and Necessity*n (1980) aipatu ez nuen bat, erreferentzia deskripzio baten bidez finkatzearena: hizkuntza komunaren erregela bat da gutako bakoitzak “subjektua” deskripzioaz finkatzen dugula “ni”ren erreferentzia. Hala ere, gutako bakoitzak hizkuntza natural bat hitz egiten duenez, eta ez inork hitz egiten ez duen alegiazko “hizkuntza zientifiko” bat, gutako bakoitzarentzat erreferentzia desberdina izan liteke (...) Nire pentsamendu propioaren subjektu gisan, erreferentzia finkatzen dudan modutik ondorioztatzen da existitu behar dudala. (Kripke 2011b: 304)¹

¹ [[T]he first person use of “I” of course does not have a Fregean sense, at least if this means it has a definition. But it might be a paradigmatic case, one that I did not mention in *Naming and*

Zer esan nahi du Kripkek “nire pentsamendu propioaren subjektu” dioenean? Eta zer du gogoan “alegiazko hizkuntza zientifiko”az hitz egiten duenean?

Hasteko, laburki azalduko dut ideia horiek nondik nora datozen Fregek indexikoei buruz esandakoez Kripkek egiten duen interpretazioan, eta zergatik dagoen oker interpretazio hori. Kripkeren ikuskera Perryrenarekin (batez ere “Frege erakusleez” (1977 [2018]) lanean aurkezten duenarekin) alderatuko dut gero. Izan ere, Kripkeren proposamenak Perryrenaren antz handia daukala uste dut, bi salbuespenekin: Fregeren ikuskera interpretatzean Kripkek ez du arazorik ikusten Pentsamendu² komunikaezinetan, eta kartesiar *ni* batera jotzen du berak “ni”ren erabilerak esplikatzean. Bi suposizio horiek—Perryren proposamenean aurki ez daitezkeenak—oztopo berriak dira Kripkerentzat: norbere ezagutzaren eta auto-erreferentziaren azalpenean premiarik gabeko konplikazioak.

Areago, garrantzitsuago dena artikulua honen eta ale honen xedeetarako, suposizio horiek ez dira egiten *N&Nn* eta, nire ustez, ez dira beharrezkoak “ni” lehen pertsonako izenordainaren azalpen semantikorako. Artikulu honen helburu nagusietako bat horixe da: erakustea nola Kripkeren beraren geroagoko ikuskera urrundu egiten den *N&Nn* esplikatu zituenetatik, eta nola Perryren azalpenak aurkakoa egiten duen.

Nolanahi ere, gero erakutsiko dudanez, Kripkek eztabaidatzen du Perryk Fregez egindako irakurketa, ez dago ados, eta Perryren eragina ikusten du gero hainbat azalpenen atzean, hala Kaplanenean nola Lewisenean. Ez du diskutitzen, ordea, lehen pertsonari buruzko (edo, oro har, indexikoei buruzko) Perryren proposamena bera. Izan ere, onartu egiten du ez dela ulertzen saiatu.³ Lastima da, nik uste, Perryren proposamenak lortzen baitu Kripkerenak lortu nahi duen gehiena, horretarako ontologia dualistetara eta azalpen epistemiko konplexuetara jo gabe.

Honako hauxe da plana, hortaz. Kripkeren izen propioei buruzko azalpen labur batekin hasiko naiz, eta izen propioen eta indexikoen arteko alde nagusiak azalduko ditut. Hurrena, “ni” lehen pertsonari buruzko Fregeren paragrafo nagusiak eta Kripkek horiez egiten duen interpretazioa aurkeztuko ditut. Hortik aurrera, Kripkeren eta Perryren ikuskerak eztabaidatuko di-

Necessity (1980), of fixing a reference by means of a description: it is a rule of the common language that each of us fixes the reference of “I” by the description “the subject”. However, since each of us speaks a natural language, and not an imaginary “scientific language” spoken by no one, for each of us the referent can be different... [I]t follows from the way I fix the reference, as the subject of my own thought, that I must exist.]

² Hemendik aurrera letra larriz idatziko dut “Pentsamendu” Fregeren Pentsamenduei, perpausen zentzuei, erreferentzeko, eta guztiok “buruan” dauzkagun gogo-egoera (uste, desio, asmo) arruntetatik bereizteko. Beste autoreen aipuetan ere erabiliko dut letra larri hori.

³ Kripke (2011a): 275, 64. oin-oharra.

tut. Azalera ekarriko dut Kripkeren baieztapenek ezkututzen duten suposizio dualista, lehen pertsonako izenordainaren bere ikuskeran eragina daukana. Amaitzeko, ohar batzuk egingo ditut “goitik beherako azalpen”ei buruz eta dualismoari buruz.

2. Kripke erreferentziaz eta izen propioei buruz

“Erreferentzia zuzena” ohiko terminoa da izen propioek eta, oro har, termino singularrek erreferitzeko duten moduaren azalpen jakin bati buruz aritzeko; Kripkek (1980), Donnellanek (1970), Kaplanek (1989a, 1989b), Perryk (1977, 1979) eta bestek defendatutako azalpen ezagunen tankerakori buruz aritzeko, hain zuzen ere. Terminoa arazotsua eta nahasgarria da, hala ere. Nahasgarria da aditzera ematen baitu, alde batetik, deskripzioek ez dutela zeresanik batere erreferentzia mugatzean, eta, bestetik, lotura zuzena dagoela, bitartekorik gabea, adierazpenaren eta bere erreferentearen artean. Baina, izatez, izen propioen kasu paradigmaticoan azalpen horiek komun dutena ez da izenaren eta erreferentearen arteko bitartekorik eza, baizik eta bitartekarizta Fregeren zentzurik gabea dela. Erreferentzia mugatzean, “bataio” garaian, deskripzioek zeregina izan dezaketenik ez du inork ukatzen (nik ezagutzen dudana inork behintzat).

Gainera, batzuetan, “erreferentzia zuzena” erreferentziaren mekanismoari buruzko tesizat hartzen da —termino batek osagai deskriptibo baten bitartez edo beste nolabait designatzen duen objektua—; eta, beste batzuetan, terminoak esaldiaren egibaldintzei egiten dien ekarpenari buruzko tesizat: objektu bat ote den edo baldintza identifikatzailearen bat (ikus Martí 1995, Perry 2012).

Eta labela arazotsua da Kripkeri berari aplikatzen zaionean ere. Ez naiz hemen xehetasunetan sartuko, baina merezi du horren alderdi batzuk argitzea, eta Kripkek duen jarrera. Xehetasun gehiagotarako ikus Devitt (ale hau).

Nolanahi ulertuta ere, erreferentzia zuzenaren proposamenak Kripkek “izen propioen ordezkapenaren doktrina” (*N&N*: 20) deritzona inpliketzen du; alegia, perpaus batean izen erreferentziakideak ordezkatzeak proposizio bera adieraztea ekarriko duela. Kripkeren beraren adibidea erabiliz, “Zizeron” daukan perpaus batean, horren ordez “Tulio” jarrita, proposizio bera adierazten da.

Baina hemendik ondorio arazotsuak datoz. Adibidez, (1) perpausak adierazitako proposizioa egiazkoa dela uste duenak (2) perpausak adierazten duena ere egiazkoa dela uste izan beharko du, alde batera utzita Zizeron Tulio dela badakien ala ez:

- (1) Zizeron erromatar hizlari ezaguna da.
- (2) Tulio erromatar hizlari ezaguna da.

Baina ez dirudi hori zuzena denik.

Hori, jakina, "Fregeren arazoa" esaten zaionaren bertsioa da. "Zentzu eta erreferentziaz" (1892 [2007]) artikulua ezagunean erakutsi zuen erreferentzia zuzenaren Mill (1843) bezalako aitzindari batek ezin zuela azaldu nola litekeen (1)ek eta (2)k esanahi kognitibo desberdina izatea; nola litekeen batek Zizeron erromatar hizlaria dela uste izatea, aldi berean Tulio hala dela uste izan gabe. Oinarrizko gertakari horri aurre egiteko, "bitarteko" osagairen bat sartu beharra dago izenaren eta erreferentzearen (Zizeron eta Tulio den pertsona bakar horren) artean. Fregeren hautagaia zentzua da. Bere proposametik ondorioztatzen da (1)ek eta (2)k Pentsamendu desberdinak adierazten dituztela edo, gaur egun esan ohi dugun bezala, proposizio desberdinak.

N&Nn, Kripkek eraso gogorra egin zion "Frege-Russell" deitu zuen izen propioen teoria deskriptibistari. Baina ez zuen erreferentzia zuzena berraztertatu. Ez esplizituki behintzat. Izan ere, N&Nren hitzaurrean hauxe dio:

Russellek "izen logikoki propio"ei buruz ikuskera hori [erreferentzia zuzena] zeukala dirudi, eta bateragarria dirudi izendatzeari buruzko "milliar" irudi huts batekin, zeinaren arabera izenaren erreferentzearen ekarpena egiten baitzaion adierazten denari soilik. Baina nik ez dut sekula izan asmorik horren urruti joateko (eta, dakidanagatik, Millek ere ez). Nire ikuskera da "Hesperus Phosphorus da" euskarazko perpausa inoiz auzi empiriko bat planteatzeko erabili ahal izateak, eta "Hesperus Hesperus da" erabili ezin izateak, erakusten duela ez ditudala *perpausak* erabat trukagarritzat jotzen. Areago, erakusten du erreferentzia finkatzeko modua garrantzitsua dela adierazitako perpausetik gure jarrera epistemikoarentzat. Horrek nolako lotura daukan auzi hauekin: perpaus horiek zein "proposizio" adierazten dituzten, "proposizio" horiek ezagutza- eta uste-objektu ote diren eta, oro har, testuinguru epistemikoetan izenak nola tratatu; etsipena eragiten duten galderak dira. Ez daukat horiei buruzko "doktrina ofizialik". (Kripke 1980: 20-21)⁴

Nolanahi ere den, Kripkek N&Nn ematen dituen adibideek, gutxienez, bi gauzak konbentzitu gintuzten gutako gehienak: lehenik, Fregeren zentzuek ez dutela betetzen bete behar omen zuten zeregina, hau da, ez dutela izen

⁴ [Russell does seem to have held such a view [Direct Reference] for "logically proper names", and it seems congenial to a purely "Millian" picture of naming, where only the referent of the name contributes to what is expressed. But I (and for all I know, even Mill) never intended to go so far. My view is that the English sentence "Hesperus is Phosphorus" could sometimes be used to raise an empirical issue while "Hesperus is Hesperus" could not show that I do not treat the sentences as completely interchangeable. Further, it indicates that the mode of fixing the reference is relevant to our epistemic attitude toward the sentences expressed. How this relates to the question what "propositions" are expressed by these sentences, whether these "propositions" are objects of knowledge and belief and in general, how to treat names in epistemic contexts, are vexing questions. I have no "official doctrine" concerning them.]

propio baten erreferentea “unibokoki” mugatzen. Bigarrenik, aurreko hori hala izan ala ez, hizkuntza naturalak ez duela *izatez* Fregek uste bezala funtzionatzen. Kripkek erakutsi zuen, esate baterako, pertsona bati erreferentzia egin geniezaiokeela izen propio bat erabiliz, nahiz eta pertsona horri buruz ezer jakin ez edo, okerrago oraindik, nahiz eta hari buruz uste dugun guztia oker egon.⁵

Esan dugunez, Kripkek ez ditu indexikoak eztabaidagai hartzen *N&Nn*, baina oso eztabaidatuak izan dira gero filosofia-literaturan. Artikulu bakar batean izen propioak eta indexikoak konbinatzea kontu zaila da, kategoria baikoitzak bere arazoak dauzkalako eta azalpen propioa eskatzen duelako. Hori ahazteak oker larriak eragin ditzake, eta eragin ditu. Kasu argia da, esate baterako, Cappelen eta Deverren *The inessential indexical* (2013) liburua. Beren baieztapena da indexikoek ez diotela hizkuntzaren filosofiari problema berririk ekartzen edo, gutxienez, izen propioen kasurako eraikitako tresneria kontzeptualaren bidez konpon ez daitekeenik. Bestela esanda, indexikoek sortutako arazo eta dilemak, Castañedak (1967), Priorrek (1967, 1968), Perryk (1977, 1979) eta Lewisek (1979) bereziki azpimarratu zituztenak, ez omen dira izen propioekin Fregek aurkeztutako identitate-arazoaren aleak baino.

Autore horien arabera, hortaz, ez dago ezer berezirik indexikoei buruz, ez ezer izen propioetatik *esentzialki* bereizten dituenik, eta, horregatik, erreferentzia indexikoei buruzko azalpena izen propioen erreferentziaren azalpenaren modukoa izan daiteke, eta hala izan behar du. Honako hau esaten dute, esate baterako:

Erreferentzia indexikoaren fregear azalpenaren kontrako [Perryren] argudioak Kripkeren lanean aurki daitezkeen Fregeanismoaren kontrako objektio ezagun eta orokorren ale hutsak baino ez dira. (Cappelen eta Dever 2013: 74)⁶

Cappelen eta Dever oker daude argi asko, nik uste. Lan honetan erakusten dudanez, indexikoek oso problema bereziak planteatzen dizkiote erreferentziaren azalpenari. Fregek berak aitortzen du hori, eta, ikusiko dugunez, fregear azalpenaz Perryk egiten duen analisisa eta Kripkek egiten duena oso desberdinak dira.⁷

Hortaz, esan berri dudanez, indexikoak eta izen propioak nahastea akats larria da, baina, zoritxarrez, ez oso ezohikoa. Izan ere, zentzu batean, indexi-

⁵ Hori da Devittek “Ezjakite eta Akatsaren argudioa” deitu zuena (ikus Devitt, ale hau).

⁶ [[Perry's] arguments against the Fregean account of indexical reference are simple instantiations of familiar and general objections to Fregeanism found in Kripke.]

⁷ Cappelen eta Deverren baieztapenei erantzun zabala eman die Perryk berak *Revisiting the essential indexical* (2020) liburuan. Bertan, Perryk 1977ko bere poposamena garatzen du, bere azken lanetako hainbat gako txertatuz.

koek izen propioen nahikoa antza daukate; bi adierazpen motak dira objektuak (pertsonek, denbora-une nahiz -tarteak, lekuak eta abar) erreferitzeko tresnak, ez diruditenak arrakastaz erreferitzeko lotutako inolako deskripzio edo zentzurik eskatzen dutenik.⁸ Baina, beste zentzu batean, izen propioaren ia aurkakoa dira indexikoak, beti baitago “baldintza identifikatzaile” bat haiei lotuta: Kaplanek beren “karaktere” eta Perryk “rol” deitu zutena. Indexiko baten karaktereak erregela bat ematen digu, testuinguru bakoitzean, indexikoaren erreferentea —hots, erreferitutako objektua—, mugatzen duena.

Oso gauza gutxi jakin beharra daukagu izen propio baten bidez objektu bati erreferentzia egin ahal izateko. Agian adierazpena izen bat dela eta ez adjektibo bat edo aditzondo bat, adibidez. Izan ere, izenarekin erreferitzeko, ez dugu zertan jakin izenari lotutako inolako zentzu edo deskripziorik. Esan dugunez, Kripkek ederki erakutsi zuen hori N&Nn. Hizkuntza naturalak ez du funtzionatzen Fregek esan bezala.⁹

Perryk, “Frege erakusleez” (1977 [2018]) lanean, urrats bat aurrera egin zuen erakustean hizkuntza naturalak *ezin duela* funtzionatu Fregek pentsatu bezala. Perryren hitzetan,

Donnellanek eta Kripkek erakusten dute izen propio arruntek ez dutela zertan halako zentzurik eduki, eta ingelesa bezalako hizkuntza ezperfektuetan ez daukatela halako izenik; ez Pentsamenduaren erreinuan ez dagoela halako zentzurik.

Nire argudioak behar diren zentzuen inexistenziari buruzkoak ziren, edo zuhurrago, haiek, irisgarritasun mugatuko zentzuetara jo gabe, aurkitzeko zailtasunari buruzkoak; uste nuen ez zela premiakoa zer gertatzen zen azaltzeko, egiantzik gabea zela, eta Pentsamenduaren erreinuari buruzko Fregeren ideien espiritutik kanpo zegoela. (Perry 2020: 94)¹⁰

⁸ Eztabaida indexiko puru edo automatiko dei genitzakeenetara mugatuko dut, eta, zehatzago, “ni” lehen pertsonako izenordainera. Ez ditut “hau”, “hori” eta “hura” erakusleak aintzat hartuko.

⁹ Esan gabe doa honi buruzko adostasuna ez dela erabatekoa. “Erreferenzialisten” (gutxi gorabehera, Kripkek N&Nn Fregeri eta Russellig egiten dizkien kritikekin bat datozenen) eta “neo-fregearren” edo “neo-deskriptibisten” arteko “guduak” bizirik dirau. Artikulu honen xedeatarako, hala ere, ontzat emango ditugu Kripkek izen propioei buruz esaten dituenak. Nire baieztapenetako bat da indexikoei buruzko bere ikuskera apartatu egin dela errotik erreferenzialisten ikuskeratik eta N&Nn berak proposatu zuen ikuskeratik ere, neo-fregearekin lerrokatzeko.

¹⁰ [Donnellan and Kripke show that ordinary proper names aren’t required to have such senses, and ordinary ones in imperfect languages like English do not have them, not that there are no such senses available in the realm of Thought.

My arguments turned in the nonexistence of the senses needed, or more cautiously, on the difficulty in finding them without resorting to senses of limited accessibility, which I thought was unnecessary to explain what was going on, implausible, and out of the spirit of Frege’s insights about the realm of Thought.]

Zentzu horretan diot Perryk urrats bat egin zuela aurrera *N&Nk* markatutako bidetik. Nahiko harrigarria da indexikoei —eta bereziki “ni”ri— buruzko Kripkeren ikuskerak urrats bat atzera egiten duela sumatzea. Hori ikusteko, esan dezagun pixka bat gehiago indexikoei buruz, “ni”ri erreparatuz, eta eztabaida dezagun Fregek horiei buruz uste zuena.

3. Frege “ni”ri buruz

Izen propioekin bezalaxe, ez dugu gauza handirik jakin behar “ni” edo beste edozein indexiko erabilita erreferitu ahal izateko; baina jakin behar dugu zerbait: indexikoaren karakterea zein den. Horrek azaltzen du (3) eta (4) baiezipenen arteko aldea esanahi kognitiboan:

- (3) María idazten ari da
- (4) Ni idazten ari naiz [Maríak esana]

“María”k eta “ni”k pertsona bera erreferitzen dute —ni— (3)n eta (4)n, baina esaldi bakoitzak efektu (eta motibazio) kognitibo desberdinak dauzka. (4) erabat normala litzateke une jakin batean zer egiten ari naizen deskribatzeko. (3), ordea, egiten ari naizenaren deskripzio egiazkoa baina arraroa eta hanpatua litzateke, ia testuinguru guztietan.¹¹ Antzera, edozeinek ulertuko luke, (4) entzutean, egiten ari naizena deskribatzen ari naizela; baina nire izena “María” dela, eta, zerbaitengatik, nire buruari hirugarren pertsonan ari natzaiola erreferentzia egiten, dakitenek soilik ulertuko lukete hori (3) entzutean.

Indexikoaren karaktereak lotzen zaion aurkezpen-modua erakusten du. Erreferentzia identifikatzeko baldintzak ematen dizkigu, nola aurkezten den mugatuz. “Ni”ren karaktereak esaten du erreferentzia “ni” daukan esaldiaren hiztuna dela. Erreferentzia —hiztuna—, beraz, modu jakin batean aurkezten da: lehen pertsona moduan. Hortaz, niri buruz ezer ez badakizu ere, jakingo duzu nire ekintzei buruz ari naizela, (4) entzuten badidazu.¹²

Hala ere, indexiko baten karakterea ez da, eta ezin da izan, fregear zentzua, erabilpen bakoitzean objektu desberdina eman baitiezaguke. Har (3) eta (4) berriz. Perpausak Pentsamenduak adierazi eta egibailioak erreferitzen dituztela esan zuen Fregek. Pentsamendu bat, Fregeren ustez, entitate oso, al-

¹¹ Salbuespenak egon litezke. Txantxetan ari gaitzke, edo ume bati hizketan, edo nolabaiteko agintariren bati (egiten ari garena modu neutral edo inpersonalen batean deskribatu nahian, adibidez). Baina oso egoera ezohikoak dira horiek.

¹² Antzera, “orain”en karaktereak esaten du erreferentzia “orain” daukan esaldiaren unea dela. Une hori, hortaz, “orainaldi” gisa aurkezten da, nolabait esan. Izenek eta datek ez dute horrelakorik eskaintzen.

daezin eta objektiboa da. Perpaus bat ulertzen dugunean, gure pentsamendu edo inpresio partikularrak alde batera utzita, objektiboki ulertzen duguna da. Hori da, hain zuzen ere, komunikazioa bermatzen duena. (3)k adierazten duen Pentsamendua, "t denboran María idazten ari da"ren moduko zerbait da. (4)k adierazitako Pentsamendua, ni hitzuna izanda eta denbora-une berean esana, "t denboran María idazten ari da" izango litzateke, baita ere.

Dena den, hori ezin da horrela izan. Edo, gutxienez, ezin da azken hitza izan. (3)k adierazitako Pentsamendua berbera izango litzateke hitzuna zein-nahi dela ere. (4)k adierazitako Pentsamendua desberdina da hitzunez hitzun. Baina hori arazotsua da. "Ni"ri lotutako zentzu bat onartzen badugu, zentzu horrek desberdina izan beharko luke hitzun bakoitzarentzat; hitzurenaren arabera desberdina baita (4)k adierazten duen Pentsamendua. Baina "ni" nola erabili jakitean dakiguna ez da aldatzen hitzunez hitzun. "Ni"k erreferitutako objektua aldatu egiten da hitzunez hitzun, baina zentzua ez. (4)k adierazitako Pentsamendua nola egon daiteke zeinek esango duenaren menpe? Eta "ni"ren zentzua hitzunez hitzun aldatuko balitz, Pentsamendua desberdina izango litzateke hitzun bakoitzarentzat: nola komunikatu Pentsamendu horiek orduan?

Fregek gutxi idatzi zuen kontu hauei buruz, eta berandu samar bere ibilbide filosofikoan: "Der Gedanken" (1918) artikuluan, batez ere. Har kontuan "ni"ri buruzko bere paragraforik aipatuena:

Orain pertsona oro aurkezten zaio bere buruari era berezi eta primitibo batean, beste inori aurkezten ez zaion moduan. Eta Lauben doktoreak, zauritu dutela pentsatzen duenean, seguru asko bere buruari aurkezteko era primitibo hori dauka oinarri gisa. Eta Lauben doktoreak soilik atzeman ditzake era horretan mugatutako Pentsamenduak. Baina orain besteekin komunikatu nahi izan dezake. Ezin du komunikatu berak soilik atzeman dezakeen Pentsamendurik. Beraz, orain esaten badu "Ni zauritu egin naute", "ni" besteek atzemateko moduko zentzuarekin erabili behar du, "une honetan zurekin hitz egiten ari den hura"ren zentzuan agian, eta hori eginez bere esaldiari lotutako baldintzak bere Pentsamenduaren adierazpenerako baliagarri egiten ditu. (Frege 1918: 103-4. Oin-oharra ezabatuta.)¹³

Bai Kripkek eta bai Perryk aitortzen dutenez, zaharra da gu geure buruari modu berezian aurkezten gatazkiolako ideia. Lehen begiratu batean, ematen du Frege nor bere buruaren lehen pertsonako ezagutza duelako ideia arruntaz ari dela: hots, alde garrantzitsua dagoela lehen pertsonako eta hiru-garren pertsonako ezagutzaren artean. Arazo berezirik ez horra arte, zentzuak

¹³ Perry (1977)ren euskarazko bertsioa Kepa Kortarena da, *Gogoa* 17n (2018) argitaratutakoa. Frege 1918ren aipuak, besterik esan ezean, Perryren artikulukoak dira, eta Kortak ingelesetik euskaratuak, hortaz.

Pentsamendu oso eta objektiboei buruzko Fregeren azalpenarekin bateratzen ez ditugun bitartean.

Izatez, ez dago erabat argi Fregek paragrafo horretan esan nahi duena. Lehen perpausak, zehazki, bi irakurketa izan ditzake, Perryk (2020: 52-53) dioen bezala. Frege ari liteke esaten pertsona bakoitzarentzat badagoela norberari aurkezten zaion modu berezi eta primitibo bat, desberdina dena besteei aurkezten zaizkien moduetatik. Nekez izan liteke hori eztabaidagarria, eta zaila egiten da pentsatzea Fregek horretan arazorik ikusiko lukeenik.

Baina bada bigarren irakurketa bat, zeinaren arabera pertsona orok daukan bere buruari aurkezteko modu berezi eta primitibo bat, norberak soilik atzeman dezakeena eta, beraz, komunikatu ezin duena. Nor bere buruari aurkezteko modu berezi eta primitibo hori nork bere burua ezagutzeko modu primitiboa ere bada, eta Pentsamendu partikular eta primitiboekin adierazten da: norberak soilik atzeman ditzakeen Pentsamenduekin. Bestela esanda, pertsona batek ezin ditzake komunikatu modu berezi eta partikular horretan atzemandako Pentsamenduak.

Hortaz, Laubenek esaten badu “Ni goseak nago”, berak soilik atzeman dezakeen Pentsamendu bat adierazten ari da eta, beraz, komunikatu ezin duena. Pentsamendu horrek “ni”ren zentzua dauka osagai, norbera bere buruari aurkezteko modu primitibo eta berezia barnean hartzen duena eta, erreferente gisa, Lauben mugatzen duena. Bere burura bera soilik “iritsi”¹⁴ daitekeenez, berak bakarrik atzeman ditzake “ni”rekin lotutako zentzua eta (berak esandako) “Ni goseak nago” perpausak adierazitako Pentsamendua. Fregeren hitzetan: “Lauben doktoreak berak soilik atzeman ditzake era horretan mugatutako [P]entsamenduak (...) Ezin du komunikatu berak soilik atzeman dezakeen Pentsamendurik”. Irakurketa hori, askoz eztabaidagarriagoa da, noski.

Baina orduan onartu beharra izango genuke Pentsamendu batzuk ez diela ez objektiboak, ezta denentzat atzemangarriak ere. Zentzu batzuk irisgarritasun mugatukoak dira. Kontuan hartuta Fregek, lehenagoko argitalpenetan, nolako esfortzua egin zuen Pentsamenduen komunikazio-zereginetarako duten izaera objektiboa zehazten, eta ideia eta pentsamendu subjektiboetatik bereizten, bere aitortza bitxia litzateke. Horixe da, gutxi gorabehera, Perryk 1977ko artikuluan atera zuen ondorioa, eta konpontzen saiatu zen problema. Kripkek, ordea, uste du Pentsamendu komunikaezinen existentziak ez diola Fregeri inolako problemarik ekartzen. Itzuliko gara Perryren soluziora gero. Ikus dezagun aurrena Kripkek zer daukan esateko horri buruz.

¹⁴ Eztabaida hauetan oso ohikoak diren *to access* eta *accessiblerentzat* darabiltzat “iritsi” eta “irisgarri”.

4. Kripkeren interpretazioa

Har gogoan honako bi egoera hauek. Kripke Stockholmen da hitzaldi bat emateko. New Yorkeko lagunari telefonoz hots egin eta esan dio:

(5) Euria ari du Stockholmen.

Fregek uste zuen denbora-aditza bai baina denbora-aditzondo edo osagarriarik ez daukaten (5) bezalako perpausek Pentsamendu osatugabeak adierazten dituztela. Arrazoa nahiko argia da, Pentsamenduak perpausaren egibalioa mugatzen duela gogoratzen badugu. Orainaldian izanda, (5)en egibalioa esaldiaren denboraren mendekoa da. Egun jakin bateko arratsaldeko 3etan, adibidez, egiazkoa izan liteke, eta faltsua 4etan. Fregeren hitzetan:

Pitagorasen teoremaren bidez adierazten dugun Pentsamendua denborarik gabekoa da seguru asko, betierekoa, aldaezina. Baina ez al dago Pentsamendurik gaur egiazkoa baina sei hilabete barru faltsua denik? Horko arbola hori hosto berdez beteta dagoelako Pentsamendua, adibidez, faltsua izango da sei hilabete barru. Ba ez, ez baita Pentsamendu bera inondik ere. "Arbola hau hosto berdez beteta dago" hitzak ez dira nahikoa bere horretan Pentsamendu baten adierazpena osatzeko, esaldiaren denbora ere hor baitago. Denboraren zehaztapenik eman gabe ez daukagu Pentsamendu osorik, hots, ez daukagu Pentsamendurik batere. Denbora-zehaztapena beteta daukan perpaus batek, alderdi orekiko osoa den perpaus batek soilik adierazten du Pentsamendu bat. Baina Pentsamendu hori, egiazkoa bada, egiazkoa da ez soilik gaur edo bihar, ezpada denborarik gabe, beti. (Frege 1918: 343. Nire itzulpena)¹⁵

Denboraren zehaztapenik ez duten aditz-denboradun perpausek, Fregeren arabera, ez dute Pentsamendu osorik adierazten. Eta Pentsamendu osatugabeak ez dira Pentsamendu. (5) bezalako perpaus batek nolabaiteko osatze bat behar du Pentsamendu osoa adierazteko eta, areago, perpaus berak Pentsamendu desberdinak adieraziko ditu erabilpen desberdinetan.

Orain burura dakigukeen aukera "erraz" bat izan daiteke esatea perpausaz eta esaldiaren denboraz osatutako konposatu bat dela Pentsamendu bat

¹⁵ [The thought that we express by the Pythagorean theorem is surely timeless, eternal, unvarying. But are there not thoughts which are true today but false in six month's time? The thought, for example, that the tree there is covered with green leaves, will surely be false in six months' time. No, for it is not the same thought at all. The words "This tree is covered with green leaves" are not sufficient by themselves to constitute the expression of a thought, for the time of the utterance is involved as well. Without the time specification thus given we have no complete thought, i.e. we have no thought at all. Only a sentence with a time-specification filled out, a sentence complete in every respect, expresses a thought. But this thought, if it is true, is true not only today or tomorrow but timelessly.]

adierazten duena. Baina hori ez da horren erraza, ikusiko dugunez.¹⁶ Kripkeren terminoetan, Pentsamendu baten adierazpena $\langle L, t \rangle$ bikote ordenatu bat da, non L hizkuntza zatia den, perpausa, eta t esaldiaren denbora. Honela argudiatzen du,

Pentsamenduaren adierazpenaren zati bat denez, $[t]$ esaldiaren denbora hizkuntzaren onartu gabeko zati bat da Fregerentzat.

Zer erreferitzen du t ? Hau da, zein da bere *Bedeutung*? Pasarteak bature zentzurik izango badu, autonomoki erreferitu behar du; hots, bere burua. Hala, “Euria ari du Stockholmen” osatugabea da —adierazten duena bete beharra dago—. [...]“du” orainaldi arruntarekin esana bada, osaketa autonomoki erabilitako esaldiaren denbora da. [...] Hizkuntzaren zati konbentzionalak diren data eta denbora zehatz baten, edo deskripzio definituen, ordez dago, beraz; goiko adibideetan bezala, zeinak hizkuntzaren zati konbentzionalak diren.

Esaldiaren denboraren *Sinn*, dagokion *Gedanke*an, hortaz, designazio autonomokoa da, erreferentearekiko ezaguera zuzenaren bidez, aipuaren kasuan bezalaxe. Hiztunak (edo idazleak edo pentsatzaileak) esaldiaren (edo idaztearen edo pentsatzearen) denboraren ezagutza zuzena du, eta *Sinn*aren ezagutza zuzena izan behar du halaber, designazio autonomoko *Sinn* batena. (Kripke 2011a: 274-75)¹⁷

Lerro hauek oso nahasiak iruditzen zaizkit, baina, esan dudanez, nire asmoa ez da Fregeri buruzko Kripkeren interpretazioaren xehetasunak aztertea. Bi kontu aipatuko ditut, besterik ez, eztabaida honetarako garrantzitsuak direnak, nire iritziz.

Nahasia iruditzen zaidan lehen baieztapena da Pentsamendu baten adierazpena $\langle L, t \rangle$ bikote ordenatua dela eta esaldiaren denbora hizkuntzaren zatia dela. Denborak, egunak, uneak, tartek ez dira hizkuntzaren zatiak; deskripzioek, izenek, aditzondoek designatutako entitateak dira; ez hitzak. Hau ulertzeko modu bat da, jakina, pentsatzea t denbora-une baten hizkun-

¹⁶ Eta Perryk “Frege erakusleez” (1977 [2018]) lanean erakutsi zuenez.

¹⁷ [...] since it is part of the expression of the thought, the time of utterance $[t]$ is, for Frege, an unrecognized piece of language.

To what does t refer? That is, what is its *Bedeutung*? To make any sense of the passage, it must refer autonomously, that is, to itself. Thus, “It is raining in Stockholm” is incomplete—what is expressed must be filled out. [...] If uttered with the ordinary present-tense “is”, the completion is the time of the utterance used autonomously. It therefore stands in place of a specific date and time, or definite descriptions, as in the examples above, which are conventional pieces of language.

The *Sinn* of the time of the utterance in the corresponding *Gedanke* is therefore that of autonomous designation via acquaintance with the referent, just as in the case of quotation. The speaker (or writer or thinker) is acquainted both with the time of utterance (or writing or thought), and he must be acquainted with the *Sinn* as well, a *Sinn* of autonomous designation.]

tza-errepresentazioa dela, perpausean esplizitua ez den deskripzio definitu bat, esate baterako; Pentsamenduaren osagai ez-artikulu baten moduko bat, nahiz eta Kripkek horrelako hitzik ez darabilen. Baina, hala ulertuta ere, ez dakit nola egin diezaiekegun aurre Fregek indexikoei buruz esaten dituen beste gauzei. Egin kontu azaroaren 3an (6) esaten dudala, eta azaroaren 4an (7):

- (6) Lainotuta dago gaur.
- (7) Lainotuta zegoen atzo.

Fregeren arabera, (6)k eta (7)k Pentsamendu bera adierazten dute, nahiz eta perpausak desberdinak diren, eta garrantzitsuagoa dena, esaldiaren denbora (azaroaren 3a) aurkezteko modua desberdina den: hitz egiten ari naizen egun gisa aurkezten da (6)n; hitz egiten ari naizen egunaren aurreko gisa (7)n.

Aurreko hori ez dago txertatzerik Fregeri buruzko Kripkeren interpretazioan, ezen, berak onartzen duenez, (6)ko eta (7)ko Pentsamenduen adierazpenak, hurrenez hurren, $\langle S_0, t_0 \rangle$ eta $\langle S_1, t_1 \rangle$ izango lirateke. Fregek esplizituki baieztatu duenaren kontra, (6)k eta (7)k ezin dute Pentsamendu bera adierazi, Kripkeren arabera.¹⁸ Hauxe ondorioztatzen du: "Pentsamendu horiek nola adierazten diren erakusteko Fregek ematen duen azalpena zuzena bada, t_0 une batean adierazitako orainaldiko Pentsamendu bat (agian "orain" edo "gaur"ez lagundutako bat) ezin daiteke geroko denbora batean berriz atzeman" (Kripke 2011a: 277).¹⁹

Azken baieztapen hori estu lotuta dago, nik uste, goiko aiputik komentatu nahi nuen bigarren baieztapen arazotsuarekin: "Hiztunak (edo idazleak edo pentsatzaileak) esaldiaren (edo idaztearen edo pentsatzearen) denboraren ezagutza zuzena du, eta *Sinn*aren ezagutza zuzena izan behar du halaber, designazio autonomoko *Sinn* batena".²⁰ Esaldiaren denboraz eta

¹⁸ Honako hau da Fregek horri buruz dioena: "Batek atzo 'gaur' hitza erabiliz esan zuen gauza bera gaur esan nahi badu, hitz horren ordez 'atzo' erabili beharko du. Pentsamendua berbera den arren, bere hitzezko adierazpenak desberdina izan behar du, zentzua berregokitzeko; bestela, esaldi-denbora desberdinek zentzuari eragingo liokete." (Frege 1918: 94).

¹⁹ [[A]present-tense Thought expressed at a time t_0 (and perhaps using "now" or "today") cannot be recaptured at any later time, if Frege's account of how these Thoughts are expressed is correct.]

²⁰ Oso nahasia egiten zaidan beste baieztapen bat da esaldiaren denborak (hizkuntzaren zati gisa hartuta) autonomoki, hots bere burua, errefereritzen duela. Item linguistiko gisa hartuta ematen du ez duela bere burua item linguistiko gisa erreferitu behar, baizik esaldia egin zen denbora gisa. Har kontuan (4) berriz. Kasu honetan, Pentsamenduaren adierazpena $\langle L, s \rangle$ bikote ordenatua izango da. s , t bezalaxe, hizkuntzaren zati gisa hartu beharra dago (esate baterako, "Lauben doktorea", edo "deskribatu dudana egoeran azaltzen zen pertsona"), baina, orduan, zein dira sren zentzua eta erreferentzia? Kripkeren arabera, sk autonomoki erreferitzen du, eta, beraz, erreferentzia hizkuntzaren zati hori bera izango da, eta ez Lauben doktorea bera. Zaila egiten zait hori ulertzen.

bere zentzuaz²¹ hiztunak daukan irisgarritasuna edo ezagutza zuzena baldin bada, orduan, ematen du t_0 n adierazitako Pentsamendu bat ezin dela gero berriz atzeman. t_0 n gertatutakoaren *berri eman* dezakegu “gaur”en ordeztu “atzo” jarriz edo “orain”en ordeztu “orduan”. Baina ezin dugu Pentsamendu bera adierazi eta ezin dugu t_0 ren ezagutza zuzenik eduki.

Nolanahi ere, zergatik uste du Kripkek “Fregek, Russellek bezala, ezagutza zuzenaren doktrina bat dauka”la (Kripke 2011a: 271)? Künnek ondo deskribatzen du Kripkeren interpretazioaren alderdi hau: “Gottlob Frege Gottrand Fressel bihurtzea” (Künne 2010: 547). Künnek bezala, ez dut horrelako eraldatzerik beharrezko ikusten eta, garrantzitsuago dena, okerra dela uste dut.

Russellek ezagutza zuzena (*acquaintance*) edo bitartekorik gabea objektu baten ezagutza gisa ezaugarritu zuen, ezaguera ez-proposizional gisa (“ez da ‘egien ezagutza’ ezpada ‘gauzen ezagutza’” (Russell 1910: 154-55)). Edo euskarazko bi aditzen erabilera zilegi bada, *acquaintance* ez da egien *jakintza*, objektuen (eta, beraz, halaber, pertsonen) *ezagutza* baizik.²² Geure gogo-egoeren ezaguera zuzena daukagula uste ohi dugu, edo *sense-data* direlakoena behintzat; eta, batzuen arabera, hainbat objektu abstrakturi buruzko ezagutza ere halako ezagutza zuzen baten kontua litzateke. Russellek berak ere ezagutza zuzenaren objektutzat hartu zituen unibertsalak. Baina izan dezakegu zentzuen ezagutza zuzenik?

Ez dut ikusten nola. Badirudi Fregeren zentzuei buruz daukagun ezaguera proposizionala dela; alegia, *jakintza* dela, ez *ezagutza* soila. Indexikoak daukaten perpausen kasuan, Pentsamendua atzemateko *jakin* beharra daukagu *nork* esan zuten; eta *non* eta *noiz*. Horiek guztiak ezagutza proposizionaleko kasuak dira:

Orainaldiak denboraren zehaztapena eskatzen badu, batek *jakin* behar du perpausa *noiz* esan den, Pentsamendua behar bezala antzemateko. (Frege 1918: 94. Letra etzana, nirea.)

Pentsamendu bat atzemateko ezagutza mota proposizionala ez baizik eta zuzena balitz, objektu bat izango genuke (denbora bat, edo t hizkuntza zati bat autonomoki bere burua erreferitzen duena, edo dena delakoa), eta ez zentzu bat edo hitzetan jar daitekeen beste ezer. Komunikazina izango litzateke, eta ez genuke guk ostera atzematerik.

²¹ Esaldiaren denboraren zentzua, alegia. Gogoratu, Kripkek Fregez egiten duen interpretazioaren arabera, esaldiaren denbora hizkuntzaren zatia dela eta, beraz, zentzu bat (*Simm*) daukala.

²² Euskarazko bi aditzok ingelesezko *to know* eta *to be acquainted* aditzekin daukaten antzekotasunaren berri Kepa Kortari zor diot.

Har dezagun beste adibide bat.²³ Lauben doktoreak, lagunari idazten dion gutunean, dio

(8) Nik begi berdeak dauzkat.

"Ni"ren zentzuaren ezagutzak zuzena izan behar balu, (8)k adierazitako Pentsamendua Lauben doktoreak soilik atzemango luke. Bera da, azken finean, "ni"ren zentzuaren ezagutza zuzena duen bakarra (hiztuna denean). Nola izan gaitezke besteok "ni"ren zentzuaren jabe, izenordaina Laubenek darabilenean? Eta, areago, ezagutza zuzena ez-proposizionala baldin bada, nola ulertuko genioke Lauben doktoreari "Nik begi berdeak dauzkat" dioenean? Berak bakarrik atzeman ditzakeen zentzuez osatutako Pentsamendu batek komunikaezina ematen du.

Lehen pertsonako izenordainari buruzko Fregeren dilemara iritsi gara atzera, hortaz. Perryk dioenaren kontra eta Fregek dioela dirudienaren kontra, Kripkek ez du arazorik ikusten Pentsamendu komunikaezinen ondorioarekin.

5. Lehen pertsona

Fregek lehen pertsonari buruz duen interpretazioa honela laburtzen du Kripkek:

Zein da "ni"ren lehen pertsonako erabilera bereziaren zeregina? Lehen bezalaxe (...) hizkuntzaren erabiltzaile kompetente batek zentzu egokiaren ezagutza zuzena izan behar du, besterik ez. Batek ez du zertan Descartesen jarraitzaile zurruna izan ikusteko gutako bakoitzak bere buruaren ezagutza daukala lehen pertsonako era berezi batean. (Kripke 2011a: 286-87)²⁴

Lauben doktoreak bere buruari "Ni zauritu egin ninduten" esaten dionean, Kripkeren arabera, "lehen pertsonako ikuspuntuak emandako ezagutza zuzeneko zentzu bat" (Kripke 2011a: 287) erabiltzen ariko litzateke. Ezagutza zuzeneko zentzu hau harentzat soilik da irisgarria, eta ezin du komunikatu, nahiz eta berak esana beste hiztunek uler dezaketen, "ni"ren haien erabilerekin lotutako norberaren ezagutza zuzeneko zentzuaren analogiaz.

²³ (5) Kripkek berak erabilitako adibidea da, egoera desberdina bada ere. (8) ahalik eta sinpleen ematen saiatu naiz, denborari eta tokiari buruzko xehetasunak alde batera utziz. Pentsatzen dut, agian oker, pertsona baten begien kolorea ez dela aldatzen bizitzan zehar.

²⁴ [What is the role of the special first-person use of "I"? Simply as before,...a competent user of the language must be acquainted with the appropriate sense. One need not be a rigid follower of Descartes to see that indeed each of us is acquainted with her/himself in a special first person way.]

Har kontuan (3) eta (4) adibideak berriz. Kripkeren interpretazio hori onartuko bagenu, (3)k Pentsamendu erabat komunikagarria adieraziko luke, “María” izenarekin lotutako zentzua izango lukeena, eta erreferente gisa ni (“María’ izeneko pertsona hau”, adibidez) eta “() idazten ari da esaldiaren denboran”en moduko zentzu osatugabe bat lituzkeena. Baina (4)k beste zerbait adieraziko luke. Gogoan har “ni”rekin lotutako zentzu pribatu eta komunikaezinak ezin nauela ni, *persona gisa*, erreferente gisa mugatu. Ezagutza zuzenez ezagututako barne-zentzu pribatu bat nola izan liteke “María” izeneko pertsonaren gisako entitate fisiko objektibo baten aurkezpen-modua? (4)k adieraziko luke “ni”ri lotutako zentzu pribatua —irisgarri niretzat soilik litzatekeena, eta erreferente gisa “neroni” mugatuko nindukeena—, gehi lehen aipatutako zentzu osatugabe bera.

Interpretazio honek, nire ustez, talka egiten du Fregeren zentzu, Pentsamendu eta indexikoei buruzko ikuskera orokorrarekin. Gertu dago hori Perryk dioenetik:

Hasteko, ez dut arrazoirik ikusten uste izateko egiazkoa dela “persona oro aurkezten zaio bere buruari era berezi eta primitibo batean”. Edo gutxienez, ez hori onartzeko arrazoirik, horrek zentzu komunikaezinetara garamatzala ulertu behar bada.

(...)

nik daukadala nik bakarrik dakidan alderdi bat dagoelako, alderdi horri dagokion zentzua *M* izanik, horretatik bakarrik ez da ondorioztatzen *M*k erreferentzia gisa kontzeptu bat mugatzen duenik, zeinaren pean ni bakarrik etortzen naizen, edo *Ma* (...) erreferentzia gisa ni, hain zuzen ere, mugatzen nauen eta “ni”ren nire esaldiekin egoki lot daitekeen zentzua denik.

Nire alderdi primitibo bat da behar dena; eta hori ez da soilik nik daukadala nik bakarrik ezagutzen dudana alderdi bat, nik bakarrik daukadana baizik. Badira nik bakarrik dauzkadan alderdi konplexuak, dudarik ez, eta alderdi primitiboak nik dauzkadala nik bakarrik ezagutzen ditudanak, baina ez dut arrazoirik ikusten nik bakarrik dauzkadan alderdi primitiboak daudela pentsatzeko. (Perry 1977 [2018]: 104-105. Letra etzana, nirea)

Kripkek, nik ulertzen diodanez, “nik bakarrik dauzkadan alderdi primitibo” horiek kartesiar *ni*aren muintzat hartzen ditu, “ni”ren erabilera bakoitzarekin hari lotutako zentzu primitiboaren bidez erreferentzia egiten diogun *ni* horren muintzat. Bestela esanda, Frege interpretatzen du esanez, ez soilik bakoitzak geure buruari aurkezteko modu partikular bat daukagula, baizik eta baita ere modu hori apartekoa dela bakoitzarentzat, eta bakoitzak bakarrik irits dezakeen zentzu (eta Pentsamendu) baten parte dela.

Oso interpretazio konplikatua begitantzen zait hori, nozio epistemiko eta konpromiso ontologiko arazotsuak dakartzana; talka egiten du, berebat,

Fregeren zentzu, Pentsamendu eta indexikoei buruzko ikuskera orokorrarekin. Bereziki bitxia iruditzen zait Perryk 1977ko artikuluan egindako proposamena baztertzea Kripkek. Esan dudana bezala, Perryren proposamena sinpleagoa da, baina, izatez, N&Nren "espíritu"tik gertuago ere badago, fregear zentzuaren kontrako aurrerapauso bat den heinean.

Esan dut baita ere Kripkek ez duela Perryren ikuskera esplizituki eztabaidatzen, baina baztertu egiten du Fregeren bere interpretazioa, Kaplanen eta Lewisen akatsen iturburutzat jotzen duena. Aurrerago laburki eztabaidatu eta baztertu egingo dut Kripkek Perryri egiten dion kritika. Lehenago, Fregek lehen pertsonari buruz dienez Perryk egiten duen irakurketa eta proposatzen duen soluzioa aurkeztu nahi ditut. Ez dut emango horren aldeko, edo Kripkeren kontrako, behin betiko argudiorik, baina espero dut erakustea Perryren soluzioa hobea dela (bai Fregerentzat eta bai lehen pertsonaren edozein azalpenentzat ere).

Zer esan zuen benetan Perryk 1977ko artikuluan? Har kontuan bere adibideetako bat:

(9) Ni David Hume naiz.

Seguru asko Hume bere bizitzan zehar pentsatu izan zuen zerbait da.²⁵ Eta berak bakarrik pentsa zezakeen hori eta zuzen egon; Hume pentsatua bakarrik izan daiteke (9) egiazkoa, alegia. Heimsonek pentsatuz gero, adibidez, faltsu izango litzateke. Eta berdin dio Perryren adibidean ero samarra den Heimsonek *benetan* hori uste badu. Hume dela uste du eta, beraz, (9) egiazkoa dela uste du, baina (9) ezin da egiazkoa izan Heimsonek uste duenean. Heimson ez delako Hume, besterik ez.

Fregeren arabera, (9)k Pentsamendu bat adierazten du, eta Pentsamenduak entitate objektiboak dira, hizkuntza bateko hiztun guztientzat irisgarriak. Baina guztientzat irisgarriak badira, edozein hiztunek irits dezake (9)k adierazitako Pentsamendua eta *egiaz uste izan* "Ni naiz Hume" k adierazitako Pentsamendua. Hala ere, Fregeren proposamenean, horrek ez dauka zentzu handirik, noski; Humek soilik *uste izan* dezake *egiaz* bera dela Hume. Badi-rudi, hortaz, Fregek onartu beharko lukeela badirela "Pentsamendu batzuk Hume baino atzeman ezin dituenak eta bera Hume dela uste izatea da Pentsamendu horiek uste izatea" (Perry 1977 [2018]: 107).

Dena dela, horrek ere ez dauka zentzurik. Fregeren teoriaren funtsezko osagaia da perpaus baten zentzua Pentsamendu bat dela, Pentsamendu horrek egibaldia mugatzen duela eta, horrela, perpaus bat ulertzea Pentsa-

²⁵ Bizitza osoan zehar pentsatuko zuen hori Hume, jakina. Esan nahi dudana da *esplizituki* noiz edo noiz pentsatuko zuela hori.

mendua atzematea dela. Pentsamendua pertsona bakar batek soilik atzeman badezake, komunikatu ezin daitekeen Pentsamendua da.²⁶ (9)k ez luke Hume bakarrik atzeman dezakeen Pentsamendua soilik adieraziko, Hume bakarrik uler dezakeen perpausa ere izango litzateke hori, berak esaten duenean. Hau da, gutxi gorabehera, Fregek indexikoekin daukan problema.

Perryk aurkezten duen konponbideak “kokatzeko uste”en nozioa darabil, eta “ni”ren kasuan (eta “orain” eta “hemen”en kasuetan) “norbera kokatzeko uste”ena. Uste hauen berezitasuna da ez direla fregear Pentsamenduak uste izatearen kontu hutsa. Hiztunak, kasu hauetan, modu jakin batean uste izan behar du uste duena: bere buruari buruzko zerbait uste izan behar du, eta ez beste inori buruzkoa.

Har kontuan

(10) Ni *Tratatuaren* egilea naiz (Hume uste izanda)

(11) Hume *Tratatuaren* egilea da

(10)en eta (11)n uste izandakoa gauza bera da ((10)eko ustearen jabea Hume den bitartean). Edo, bestela esanda, (10) eta (11)ren edukia bera da: Hume *Tratatu*a idatzi zuela. Egiazko izateko baldintza desberdinak dauzkate (10)ek eta (11)k, hala ere. Hume uste izanda soilik izan daiteke (10) egiazko; (11), aldiz, egiazkoa da, ustearen jabea nornahi dela ere. *Nork* uste duen garrantzitsua da (10)ek adierazitako Pentsamenduarentzat, eta, beraz, bere egibaldioarentzat; (11)renarentzat, ez. (10) norbera kokatzeko ustea da, (11) ez:

Onartzen dugu ez dagoela Pentsamendurik Hume bakarrik atzeman dezakeenik. Baina berak bakarrik jakin dezake bera Hume dela. Hume besteongandik bereizten duena ezin da izan pentsatzen duen Pentsamendua soilik, hori pentsatzen duen era baizik [...]

Beraz, norbera kokatzeko ezagutzak ez du eskatzen Pentsamendu jakin batzuk atzematea soilik, erakusleak dauzkaten perpaus jakin batzuen zentzuen bidez atzematea baizik. (Perry 1977 [2018]: 107)

Guztiok atzeman dezakegu Hume *Tratatu*a idatzi zuelako Pentsamendua (11)ren bidez. Baina Heimson (10) uste izanda atzematen duen Pentsamendua ez da Hume *Tratatu*a idatzi zuela, ezpada Heimson (10) idatzi zuela. Perryren arabera, Heimson eta Hume Pentsamendu desberdinak ari dira atzematen, *gogoan* zentzu bera *erabiliz*:

²⁶ Izatez, pertsona bakar batek atzeman dezakeen Pentsamendua ezin atzeman daitekeen Pentsamendua da. Nola jakin genezake Pentsamendu bat atzeman dugun, ezin badugu komunikatu? Besteek atzeman dezaten, hizkuntza natural batean adierazi ezin badugu?

Heimsonek "Ni *Tratatuaren* egilea naiz"en zentzua darabilenean, osagai gisa Heimson eta "() *Tratatuaren* egilea da"ren zentzua dauzkan Pentsamendua atzematen du. Pentsamendu hori faltsua da. Humez zentzu bera darabilenean, osagai gisa Hume eta "() *Tratatuaren* egilea da"-ren zentzua dauzkan Pentsamendua atzematen du, eta hori egiazkoa da. Hume zuzen dago, Heimson erotuta. (Perry 1977 [2018]: 108)

Zentzuak jasotzen du, Perryren proposamenean, zerbait uste izateko daukagun *modua*. Pentsamendua *zer* uste dugunari dagokio, gure usteen edukiari.

Konponbide honek, intuitiboa dirudien arren, aldaketak eskatzen ditu zentzuari eta Pentsamenduari buruzko Fregeren nozioetan. Aldaketa hauek, hala ere, Kripkeren interpretazioak ekartzen dituenak baino askoz ere erraza-goak dira. Kripkerenak eskatzen du onartzea "ni"ren erabilerek Pentsamendu komunikaezinak adierazten dituztela, zentzuak ezagutza zuzenez iristen ditugula, eta ezin dugula Pentsamendu bat bi modutan adierazi, "gaur"en ordez "atzo" jarritz.²⁷ Niaren kartesiar nozio bat onartzea ere eskatzen du, gainera.

Perryren aldaketak sotilagoak dira, nahiz eta adar garrantzitsuak sortzen dituzten. Bere proposamenean, ez da gehiago egia "Ni Hume naiz"ek adierazitako Pentsamendua Humez berak soilik atzeman dezakeela, berak bakarrik uste izan dezakeelako Pentsamendu hori. Humez soilik pentsa dezake *egiazki* Pentsamendu hori, norbera kokatzeko uste baten bitartez. Hemen gakoa ez da zein Pentsamendu atzeman ditzakeen Humez, "erakusleak dauzkaten perpaus jakin batzuen zentzuen bidez atzematea baizik" (Perry 1977 [2018]: 107).

Heimsonek eta Humez Pentsamendu berak atzeman ditzakete eta gogoan zentzu berak erabili. Egin ezin dezaketena da Pentsamendu berak atzeman gogoan *zentzu berak erabiltzearen bitartez*. (11)k adierazitako Pentsamenduak, adibidez, "() Hume izan" zentzu osatugabea dauka zati gisa. Pentsamendua, hortaz, zentzu osatugabe horrek eta hiztunak (pentsatzaileak) osatzen dute. "Ni"ri lotutako zentzua aintzat hartuta, hiztuna (pentsatzailea) Hume den testuinguru batean honako Pentsamendu oso hau lortzen dugu: "Hume Hume da". Hiztuna Heimson den testuinguruan, "Heimson Hume da". Lehen egiazkoa da, bigarrena faltsua.

Norbera kokatzeko usteak onartzea Fregerengandik nahikotxo aldentzea da. Seguru asko, Fregeri ez litzaioke asko gustatuko, nahiz eta "Pentsamendua" lanean konpondu nahi izan zuen arazoa konpondu.²⁸ Baina berak ez

²⁷ Kripkek ez du uste ezagutza zuzena onartzea aldaketa litzatekeenik Fregerentzat. Esaten du Fregek, bestela ere, inplizituki onartzen zuela Russellen nozioa. Ez du horren argudiorik ematen, ordea, eta, esan dudanez, ez dut uste Russellen ezagutza zuzena egokia denik zentzuetarako irismena azaltzeko.

²⁸ Hau espekulazio hutsa da, jakina. Ezin dugu jakin Fregek zer pentsatuko zuen. Gainera, denak ez datoz bat. Evansek (1985), esate baterako, uste du Perryren proposamena Fregerenaren notazio-aldaera baino ez dela. Kripke (2011a) ere bat datorrela ematen du.

zuen hizkuntza naturala gustuko (ez behintzat jakintzarako tresna gisa), indexikoen, erakusleen eta testuinguruaren mendeko beste adierazpenak dirrela-eta, hain zuzen ere. Fregeri asko inporta ez zitzaion baina hizkuntza naturalaren edozein teoriarentzako garrantzitsua den beste kontu bat da hizkuntzaren, pentsamenduaren eta ekintzaren arteko erlazioa. Kokatzeko us-teek ederki asko azaltzen dute erlazio hori.

Areago, eta azpimarratzeko, Perryren konponbideak ez dakarkio gure ontologiari entitate (ikuspegi, perspektiba, propietate edo kontzeptu) berririk eta ez du inolako irisgarritasun epistemiko berezirik norberaren *nira*. Hortaz, zergatik uste du Kripkek Perryren interpretazioa okerra dela? Oinarrian, uste duelako Perryren proposamenak, bere iritziz Kaplanenaren atzean dagoenak, “ondorio gogorragoa” dakarrela: “esku artean darabilgun *ni*-kontzeptuak (“*ni*”ren lehen pertsonako erabilerari lotzen zaion horrek) bere subjektuak hizkuntza neutral batean ezaugarritu beharko lituzke[ela]” (Kripke 2011b: 298).²⁹

Objekzio hori hurrengo atalean eztabaidatuko dut, laburki. Lehenago, lehen pertsonari buruzko Kripkeren ikuskeraren alderdi batzuk azpimarratu nahi ditut, izatez, nahikoa antza daukatenak Fregeren azalpenaz egiten duen interpretazioarekin.

Labur esanda, Fregeri buruz Kripkek egiten duen irakurketan, (10)en esaldi batek Pentsamendu osoa adierazten du, $\langle L, s \rangle$ bikote ordenatua, non L perpausa den eta s hiztuna, eta hizkuntzaren zati gisa ere hartu behar da. sk autonomoki erreferitzen du (bere burua), eta, hortaz, Hume bera, “*ni*” erabiltzean, Pentsamenduaren adierazpenaren zati da, autonomoki bere burua designatuz. Designazio horren zentzua ezagutza zuzenez datorkio Humeri. Hume bakarririk atzeman dezake, beraz. Besteok “*ni*”ren gure erabileretan adierazitako zentzuen ezagutza zuzenaren analogiaz soilik irits dezakegu zentzu hori. Uler dezakegu, horrela, (10)ek adierazitako Pentsamendua, baina ez erabat. Ezin dugu Pentsamendua atzeman. (10)en (eta (11)n) “Hume Hume da”ren zentzuaren ezagutza zuzena du Hume; Heimsonek, berriz, “Heimson Hume da”ren zentzuarena.

Pentsamendu bat atzemateko zentzu bat —rol gisa ulertuta— gogoan erabiltzeaz hitz egiten du Perryk (objektu batek eta zentzuak osatua). Zentzu bat gogoan erabiltzeak ez du esan nahi zentzuen ezagutza zuzena denik edo bestelako beste harreman zuzen edo pribilegiatua duenik. Honako hau besterik ez du esan nahi: “*ni*”ren gisako indexiko eta erakusleen erabilera gobernatzen duten erregelak jakitea.

Antzera, hiztunak Pentsamendu bat atzematzen duela esatean, Perryk ez dio bere burua lotzen hori nola gertatzen den dioen inolako azalpen episte-

²⁹ [the stronger conclusion that the self-concept in question (the one associated to the first person use of “*I*”) would have to characterize its subjects in a neutral language.]

mikori. Fregear proposamen batean, atzemateak ekarriko luke entitate abstraktu baten eta gure arteko erlazio bat. Erlazio horrek nola funtzionatzen duen kontu serioa da, baina ez da "ni"ren semantikaren berri emateko erantzun beharrekoa. Edo ez, behintzat, "ni"ren fregear semantikaren berri emateko beharrezkoa.

6. Kripke eta lehen pertsona

"The first person" lanaren erdi aldera, Kripkek utzi egiten dio Fregeren ikuskeraz hitz egiteari eta lehen pertsonari buruzko bere ikuskera propioa azaltzeari ekiten dio. Baieztatzen duen lehengo gauza honako hau da:

"Ni"ren lehen pertsonako erabilerak ez dauka fregear zentzurik, noski; horrek definizio bat daukala esan nahi badu gutxienez. Baina izan daiteke kasu paradigmatico bat, *Naming and Necessity* (1980) aipatu ez nuen bat, erreferentzia deskripzio baten bidez finkatzearena: hizkuntza komunaren erregela bat da gutako bakoitzak "subjektua" deskripzioaz finkatzen duela "ni"ren erreferentzia. (Kripke 2011b: 304)³⁰

Lehen begiratuan ematen du lehen atalean aurkeztu duen eta Perryren azalpenean oinarritzen den ohiko ikuskera ari dela defendatzen Kripke: "ni"ri karaktere bat lotzen zaio, erabilpen-testuinguru bakoitzean bere erreferentea (edukia) finkatzen duena. Karakterea, hortaz, "erregela bat" da, erabiler bakoitzean erreferentea mugatzen duena. Kaplanek "ni" izenordainaren "karaktere" eta Perryk "rol" deitzen duena da honako hau:

(S) "ni"ren *u* erabilera batek *s* erreferitzen du, baldin eta bakarrik baldin *s* *u*ren hiztuna bada.

"Ni"ren esanahi linguistikoa da (S), testuinguru bakoitzean "ni"ren "esanahi osoa" edo edukia ematen digun erregela. Hau da, *u* erabilera bakoitzarentzat, Lauben doktorea ematen digu *u*ren hiztuna Lauben doktorea den testuinguru batean, eta Gottlob Frege ematen digu *u*ren hiztuna Gottlob Frege denean. "Ni" bezalako indexikoek karakterea eta edukia dauzkatela nahiko tesi zabaldua da azken hamarkadetako literaturan, baina Kripkek badauka arazoren bat horrekin. Goiko aipuari begiratu sakonagoa eman ez gero, Kripke hor esaten ari dena oso bestelakoa da ikuskera estandar horren aldean.

³⁰ [[T]he first person use of "I" of course does not have a Fregean sense, at least if this means that it has a definition. But it might be a paradigmatic case, one that I did not mention in *Naming and Necessity* (1980), of fixing a reference by means of a description: it is a rule of the common language that each of us fixes the reference of "I" by the description "the subject".]

Esaten du: “hizkuntza komunaren erregela bat da gutako bakoitzak ‘subjektua’ deskripzioaz finkatzen duela ‘ni’ren erreferentzia”. Baina (S) ez da “subjektua” deskripzioaren baliokide. Erregela bat da, hiztuna hautatzen duena, nornahi dela ere, erabilaldi bakoitzean. Eta hori, Kripkerentzat, ez da nahikoa “ni”ren erreferentzia mugatzeko. Bi arrazoi dauzka horretarako.

Lehenik, “ni”ren edukia edo erreferentzia ez delako hiztuna, ezpada “subjektua” edo “*nia*” (*self*) (termino bat zein bestea berdin darabiltza testuan). Subjektua, jakina, hiztuna da, baina “pentsatzearen subjektu” ere bada; hiztunari modu zuzen, primitibo eta berezian aurkezten zaion *nia* bera; introspektzioz ezagutzen den kartesiar *ni*aren oso antzekoa.

Bigarrenik, Kripkeren iritzian, akats larria delako “ni”ren erabilerei lotutako deskripzioa edo erregela hizkuntza “zientifiko” edo “neutral” batera erreduzitzea. Kripkek “goitik beherako azalpena” esaten die Kaplanen eta Perryren lehen pertsonaren azalpenei, eta tarte handi samarra ematen du haien kontra argudiatzen.

Lehenengo kezka buruz, kartesiar *nirik* ba ote dagoen ala ez, ez daukat askorik esateko. Baina esan dezadan beste behin: ez dut ikusten zergatik izan daitekeen garrantzitsua “ni” lehen pertsonako izenordainaren azalpen egozia emateko. Esana dut arazoak dauzkadala Frege horrela interpretatzeko. Esan dezadan pixka bat zergatik iruditzen zaidan sobera dagoela, eta oker, Kripkeren ikuskerarentzat berarentzat.

Hasteko, esan behar dut, nahiz eta Kripkek dioen bere ikuskera propioaz, eta ez Fregerenaz, ari dela eta “‘Ni’ren lehen pertsonako erabilerak ez dauka[la] fregear zentzurik, noski, horrek definizio bat daukala esan nahi badu gutxienez”,³¹ Kripkeren ikuskerak Fregeren azalpenaren bere interpretazioak dauzkan baliabideak egiten dituela bere: ezagutza zuzena, erreferentzia autonimoa, *ni*-kontzeptuak, eta *ni*aren nozio gogorra.

Kripkeren proposamenean ez daukagu zertan “ni”ren erabilerek adierazitako zentzuen ezagutza zuzenik eduki; “ni”ren lehen pertsonako erabilerak ez daukalako zentzurik. Baina “ni”ren erabilerekin lotutako *ni*-kontzeptuaren ezagutza zuzena daukagu. *Ni*-kontzeptu horiek kartesiar *ni*en kontzeptuak dira: pertsona batek, eta pertsona bakar batek, introspektzioz ezagutzen dituen pentsatzearen subjektuak dira, eta, beraz, haiei buruz ezer esan ezin daitekeen subjektuak, ezer ezin “komunikatu”ren zentzuan. *Nia*, Kripkeren ustez, zentzuen inpresio baten modukoa da, edo gure barne-espazioko nozio matematiko abstraktu baten modukoa: irisgarritasun zuzena daukagu haietara, baina ezin dugu haiei buruz hitzik egin.

³¹ Zer esan nahi du horrekin?

7. Hizkuntza neutrala eta "goitik beherako azalpena"

Onartzen badugu "ni"ren lehen pertsonako erabileren goiko ikuspegi hori, kartesiar *ni*aren deskripzioak darabiltzan hori, orduan, testuinguru bakoitzean "ni"ren edukia mugatzen duen (S)ren gisako karaktere baten ideia ez da nahikoa izango, noski. (S) erregelak dio: "'ni'ren *u* erabilera batek *s* erreferitzen du, baldin eta bakarrik baldin *s* *uren* hiztuna bada". Erabilaldi bakoitzean, (S)k hiztuna emango digu, eta ez "pentsatzearen subjektua". Ez daukat asko esateko, lehen ere esan dut, salbu eta ez dudala ikusten kartesiar *nia* gehitzeak lehen pertsonako izenordainaren erabilera ulertzen nola laguntzen digun. Bukatzeko, hala ere, eztabaidatu nahi dut, laburki bada ere, "goitik beherako" deitzen dituen azalpenen kontra Kripkek esateko daukana.

Bere argudioen zati handi bat "goitik beherako" adierazpenen azalpen semantikoan "argibide" edo "instrukzio"en alderdiei buruzkoa da:

"Goitik beherako deskripzio"ak erabilgarria izan beharko luke hizkuntza ikasi nahi duen norbaitentzako argibide-eskuliburu gisa. Kaplanen azalpena "ni"ren kontzeptua izatez badaukan antropologo deskriptiboren batentzat oso ondo egon litekeen arren, oso zaila izango litzateke Fregeri (edo kontzeptu hori ez daukala pentsatzen dugun edonori) ulertaraztea. Hala, adibidez, utz diezaiogun Kaplani esaten Fregeri edo beste edonori (baina Fregeri bada, batek alemana erabili beharko luke): "alemanez hitz egiten duen edozein *s* pertsonak 'ich' hitza erabiliz propietateren bat esleitzen badu, orduan, *sk* esaten edo pentsatzen duena egiazkoa da, baldin eta bakarrik baldin *sk* propietate hori badu". Baina nola erabil lezake Fregek "ich", argibide horietan oinarrituta? (Kripke 2011b: 300-1)³²

Esan nahi dudana lehen gauza da ez daukadala oso argi Kripkek nolako hiztunak dauzkan gogoan. Ba al dira Kripkeren eta Fregeren gisako hiztun helduak, "ni"ren (edo "ich"en) kontzepturik ez daukatenak? Zaila egiten da benetako adibide bat topatzea. (S) ikastea ez litzateke nahikoa izango indexikorik gabeko hizkuntza bat hitz egiten duen pertsona heldu batentzat —baina ez dakit halako hizkuntzarik ba ote dagoen—, edo batere hizkuntzarik gabeko pertsona batentzat, haur txiki batentzat kasu. Haur txiki batek ez dauka "ni"ren kontzepturik, baina hizkuntzarik ere ez. Nahiko zaila da, hortaz, (S) ikasiz kontzeptua ikasiko lukeen egoera bat irudikatzea.

³² [[T]he "description from above" ought to be usable as an instruction manual for someone wishing to learn the language. Though Kaplan's explanation is all very well for some sort of descriptive anthropologist who may in fact have the concept of "I", it would be very difficult to get it across to Frege (or anyone else who is presumed to lack this concept). So, for example, let Kaplan say to Frege or to anyone else (but if it is Frege, one should use German): "If any person *s* speaking German attributes a property using the word 'ich', then what *s* says or thinks is true if and only if *s* has that property". But how can Frege use the word "ich" on the basis of these instructions?]

Gutako askok heldutan ikasi dugu “ni”ren kontzeptua, noski, euskara ikastearekin batera. Baina guretzat, lehen hizkuntza euskara ez dugunontzat, erraza da oso: ikasi behar duguna da “ni” dela euskaraz goiko (S) erregelen bere zeregina betetzen duena; gaztelaniaz “yo”k edo alemanez “ich”ek betetzen duen eran. Horregatik pentsatzen dut haur batek hizkuntza ikasteko moduz ari dela Kripke, baina alde batera uzten ari dela haurrek agian ez luketela (S) ulertuko, eta esaten duela (S) ikastea ez litzatekeela nahikoa.³³ Zergatik?

Oinarrizko ideia da, Kripkeri ondo ulertzen badiot, ezin dela “ni”ren-tzako erregela atzeman hizkuntza arruntean baieztua, ez bada norberak bere *ni*aren ezagutza zuzenez. Gutako bakoitzak bere buruaren ezagutza zuzena izanda finkatzen du “ni”ren erreferentzia. Eta hori ez da atzematen, eta ezin da atzeman, (S)rekin, edo hizkuntza “neutro” batean (hots, indexikorik gabeko hizkuntza batean) emandako beste edozein baieztapenekin.

Baina hori ezin da ondo egon, nik uste; ezta “ni”ren erreferentzia ezagutza zuzenez finkatzen dela onartuko bagenu ere. Kripkek hemen ez du aintzat hartzen uste dugunaren eta uste duguna uste izateko moduaren arteko Perryren bereizketa. Labur esanda, ez du aintzat hartzen (3)ren (“María idazten ari da”) eta (4)ren (“Ni idazten ari naiz”) arteko bereizketa ez datzala (4)ko erabilera partikularrarekin lotutako *ni*-kontzeptua (edo “ni”ren erabilera horren zentzua, Fregeren ustez) nik bakarrik atzeman ahal izatean, (3)rekin denok gauza bera ulertzen dugun bitartean (“María”ren erreferentzia zein den denok baldin badakigu).

Kontua ez da nik bakarrik atzeman dezakedala (4)ko “ni”rekin lotutako kontzeptua eta zuek zeuona “ni”ren erabileren analogiaz, eta zeuen buruen ezagutza zuzenez, soilik “uler dezakezuela”. Desberdintasun garrantzitsua dakarten edo ekar dezaketen eragin kognitiboan datza. Eta hori nahiko erraz azal daiteke norbera kokatzeko usteen ideiarekin eta gure esaldi eta uste batzuen izaera indexiko esentziala (Perry 1977, 1979) aintzat hartuz.

Azkenik, “ni” lehen pertsonako izenordainaren zeregina azaltzeak, bere edukia testuinguruarekin batera nola mugatzen den esplikatzeak ez du inolako erredukzionismorik ekartzen, Kripkek iradokitzen duenaren aurka. Kontua ez da indexikoekin adierazi ohi duguna hizkuntza zientifiko batean adieraztea. Kontua da indexikoak erabiltzeko erregelak azaltzea, azalpenean indexiko horiek berak erabili gabe.

Ez dugu *nia* edo lehen pertsonan pentsatzearen aukera “ezabatzen”, “ni”ren erabilerak “ni” erabili gabe esplikatuz. Azken hori osatu beharko dugu, noski, lehen pertsonako Pentsamenduaren edo hizketaren edo uste izatearen azalpenarekin. Baina hori beste kontu bat da. (S), azken finean, esanahi linguistikoa besterik ez da: erabilera bakoitzean “ni”ren erreferentzia ematen

³³ Kripkek Lewisen (1979) jainkoak ere izan zitzakeen gogoan, baina ez ditu aipatzen.

digun erregela bat. Ez da "esanahi osoa" eta are gutxiago "ni"ren erabileren, bere esanahi kognitiboaren, eta pentsamenduan eta ekintzan daukaten zereginaren azalpen osoa. Zergatik espero behar dugu, orduan, hori nahikoa izatea "ni" erabiltzen ikasteko edo, areago, "ni-kontzeptu" batez jabetzeko?

Argi dago karaktere edo rolen bidez emandako azalpenak ez digula ekarriko *ni*-kontzeptu mamitsu bat edo Kripkek eskatzen duela dirudien zuzenean ezagututako *ni*aren kontzeptu bat. Baina zalantza egiten dut hori ote zen Kaplanen eta Perryren asmoa. Eta ez dut uste zilegi denik hori dena eskatzea "ni"ren beste edozein azalpen semantikori.³⁴

8. Ondorioak

Artikulu honetan Kripkek Fregez egiten duen interpretazioaren kontra egin dut. Ez dut esaten Kripkeren interpretazioak ez daukanik Fregek "ni"rekin daukan problemei aurre egiteko gaitasunik. Badaukala uste dut, baina kostua gehiegizkoa dela ere bai.

Hasteko, esan dut Kripkeren interpretazioak talka egiten duela Fregek zentzuez eta Pentsamenduez duen ikuskera orokorrarekin. Bereziki, emaitza okerrak dauzka "gaur" eta "atzo"ren gisako denborazko indexikoekin ari deanean. Fregek esan zuenaren kontrako ondorioetara garamatza Kripkek. Bigarrenik, esan dut Kripkek Fregez egiten duen interpretazioak premiarik gabeko konplexutasuna daukala eta ongi argudiatu gabeko suposizioak egiten dituela. Horrelako bi aipatu ditut: fregear zentzuen ezagutza zuzena daukagula eta *ni*ari buruzko kartesiar ikuskera dualista.

Suposizio dualista da, nire ustez, bietan harrigarriena. Ez beharrezkoa ez delako bakarrik —literaturan badira dualismorik eskatzen ez duten hainbat interpretazio bideragarri, Perryk jorratutakoa kasu—, baizik eta, batez ere, baita Kripkek *N&Nn* proposatutako ideien kontra doala dirudielako ere; zentzu inportante batean, bederen. Amai dezadan horri buruzko ohar labur batzuekin.

N&Nn Kripkek eraso gogorra abiatu zuen Fregeren zentzuak hizkuntza naturaleko erreferentzia eta esanahia esplikatzen beharrezkoak zirelako ideien kontra. Ez zuen esan, lehen ere esan dut, fregear zentzuak existitzen ez direnik, edo inkoherenteak direnik. Baina erakutsi zuen hizkuntza naturalak ez duela funtzionatzen Fregek pentsatu bezala eta, areago, ezin duela horrela funtzionatu.

"The First Person" lanean, ordea, "ni"ri buruzko Kripkeren ikuskera Fregerenaren bere interpretazioaren jarraipena dela dirudi. Artikulua lehen

³⁴ Ted Siderrek (2015) bestela esaten du. Bere ustez, Kripke zuzen dago Kaplanen azalpenari bizkarreratzen dionean ez duela *ni*-kontzeptua azaltzeko nahikorik egiten. Onartzen du, hala ere, "*ni*ari buruzko" auzi garrantzitsua dela, baina ez "ni"ren semantikari buruzkoa.

zattia interpretazio horri eskaintzen dio, baina, “ni”ri buruzko bere posizio propioa aurkeztera datorrenean, artikuluaaren bigarren zatian, Kripkek ez digu proposamen desberdinik egiten. Egiten duena da areago esplikatutako beharrezko osagai ontologiko eta epistemologikoak, Fregeren bere interpretazioa bideragarri izateko; eta badirudi horixe dela, azken buruan, Kripkek berak defendatzen duen ikuspegia.

Ustekabea izan zen hori niretzat. Baina ez zen izan emaitza harrigarri bakarra. Bigarrenak dualismoarekin dauka zerikusia. Egia da N&Nren hiru-garren hitzaldian Kripkek argudio ezagun bat aurkezten duela gorpu-gogo identitate-teorien kontra. Argudio hau, “argudio modal” esaten zaiona, dualismoaren aldeko argudiotzat hartu ohi da. Baina, izatez, Kripkek ez du dualismoa esplizituki defendatzen N&Nn. Argudio modala, bere horretan, ez da dualismoaren aldeko argudio bat. Balekoa bada, hartatik atera dezakeguna da, gehienera ere, gogoari buruzko teoria fisikalista jakin batzuek —identitate teoriek— ez dutela balio. Baina, jakina, hainbat fisikalismo modu daude. Baita hainbat dualismo modu ere.

Dualismoaren alde egiteko argudio gehiago behar ditu Kripkek. Ez zituen eman N&Nn. Ematen ditu batzuk “The First Person”en azken zatian, baina ez dira dualismoaren *aldeko* argudioak. Dualismoa zergatik auresuposatzen duen azaltzeko argudioak dira gehiago. Azaltzen du, esate baterako, Humeren *niri* buruzko nozioa ez dela bideragarria, eta zergatik Descartesena ego-kiagoa den “ni” eta *niari* buruzko bere ikuskerarentzako. Baina hori zirkularra da. “Ni”ri buruzko bere ikuskera, esan dugunez, *niaren* kartesiar ikuskera batean oinarritzen da. Kartesiar ikuskeraren defentsa, hortaz, ezin da “ni”ri buruzko bere ikuskeran oinarritu.

Labur esanda, Kripkek N&Nn ez du dualismoaren defentsarik egiten, agian beharrezkoa zenean. Ematen ditu argudioak “The First Person”en, baina ez dira nahikoak eta, are, ez dira beharrezkoak ere. Azken finean, artikuluaaren gaia “ni” izenordain pertsonalaren azalpen semantikoa da. Horretarako dualismoa behar dela esateak gehiegizkoa dirudi.

Erreferentziak

- CAPPELEN, Herman eta Josh DEVER. 2013. *The Inessential Indexical. On the philosophical Insignificance of perspective and the first person*. Oxford: Oxford University Press.
- CASTANEDA, Hector-Neri. 1967. “Indicators and Quasi-Indicators”. *American Philosophical Quarterly* 4: 85-100.
- DEVITT, Michael. 2021. “Reflections on Naming and Necessity”. *Gogoa* 22 (ale hau): 63-92.
- DONNELLAN, Keith. 1970. “Proper Names and Identifying Descriptions”. *Synthese* 21 (3-4): 335-58.
- EVANS, Gareth. 1985. “Understanding Demonstratives”. In Evans, *Collected Papers*. Oxford: Oxford University Press, 291-321.
- FREGE, Gottlob. 1892. “On Sense and Reference”. In P. Geach eta M. Black (arg.), 1980, *Translations from the Philosophical Writings of Gottlob Frege*. Oxford: Black-

- well, 56-78. [Euskarazko itzulpena: 2007. "Zentzu eta erreferentziaz". In K. Korta (atontzailea), *Hitzaren Lilura. Hizkuntzaren Filosofiako Irakurgaiak*. Bilbo: UPV/EHU, 37-59. Itzultzailea: Miguel Mori.]
- FREGE, Gottlob. 1918. "Thought". In Frege (M. Beaney arg.), 1997, *The Frege Reader*. Oxford: Blackwell, 325-45.
- KAPLAN, David. 1989a. "Demonstratives". In J. Almog, J. Perry eta H. Wettstein, *Themes from Kaplan*. Oxford: Oxford University Press, 481-563.
- KAPLAN, David. 1989b. "Afterthoughts". In J. Almog, J. Perry eta H. Wettstein, *Themes from Kaplan*. Oxford: Oxford University Press, 565-614.
- KRIPKE, Saul. 1980. *Naming and Necessity*. Cambridge, MA: Harvard University Press.
- KRIPKE, Saul. 2011a. "Frege's Theory of Sense and Reference". In Kripke, *Philosophical Troubles: Collected Papers, Volume 1*. Oxford: Oxford University Press, 254-91.
- KRIPKE, Saul. 2011b. "The First Person". In Kripke, *Philosophical Troubles: Collected Papers, Volume 1*. Oxford: Oxford University Press, 292-321.
- KÜNNE, Wolfgang. 2010. "Sense, Reference and Hybridity: Reflections on Kripke's Recent Reading of Frege". *Dialectica* 64-4: 529-51.
- LEWIS, David. 1979. "Attitudes *De Dicto* and *De Se*". *Philosophical Review* 88: 513-43.
- MARTÍ, Genoveva. 1995. "The essence of Genuine Reference". *Journal of Philosophical Logic* 24: 275-89.
- MILL, John Stuart. 1843. *A System of Logic*. London: Parker.
- PERRY, John. 1977. "Frege on Demonstratives". *Philosophical Review* 86: 474-97. Berrargaratua in Perry 2000. [Euskarazko itzulpena: 2007. "Frege erakusleez". In K. Korta (atontzailea), *Hitzaren Lilura. Hizkuntzaren Filosofiako Irakurgaiak*. Bilbo: UPV/EHU, 243-75. Itzultzailea: Kepa Korta. Bertsio berriago bat, 2018, *Gogoia* 17: 89-117, Kepa Kortarena.]
- PERRY, John. 1979. "The Problem of the Essential Indexical". *Noûs* 13: 3-21. Berrargaratua in Perry, 2000. *The Problem of the Essential Indexical and Other Essays, Expanded Edition*. Stanford, CA: CSLI Publications, 27-44.
- PERRY, John. 2001/2012. *Reference and Reflexivity* (2. edizioa). Stanford, CA: CSLI Publications.
- PERRY, John. 2020. *Revisiting the Essential Indexical*. Stanford, CA: CSLI Publications.
- PRIOR, Arthur N. 1967. "On spurious egocentricity". *Philosophy* 42, 162: 326-35.
- PRIOR, Arthur N. 1968. "Now". *Noûs* 2 (2): 101-19.
- RUSSELL, Bertrand. 1910. "Knowledge by Acquaintance and Knowledge by Description". Berrargaratua in Russell, 1917, *Mysticism and Knowledge*. London: Unwin, 209-33.
- SIDER, Ted. 2015. "Comments on Saul Kripke's *Philosophical Troubles*". *Disputatio. Philosophical Research Bulletin* 4 (5): 67-80.